

Txostena 2019



EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA
COORDINADORA
de ONGD EUSKADI

www.ongdeuskadi.org

Aurkibidea

Aurkezpena 3

Gure ekimenak 6

Generoa	7
Eragin politikoa	9
Mobilizazioa eta gizarte- eraldaketarako hezkuntza	12
Sektorea sendotzea eta zerbitzuak	20
Publikoari, GGKEei eta instituzioei arreta	20
Formakuntzak eta jardunaldiak	23
Ikerketak	25
Komunikazioa	26


Nortzuk gara 28

Gobernu Batzordea	29
Lan-taldeak	29
Erakundeetan partaidetza	30
Talde Teknikoa	30
GGKEak	31

Kontu argiak 32



Aurkezpena



Euskadiko garapenerako gobernuz kanpoko 79 erakundek (GGKE) osatutako kolektibo bat gara, eta nazioarteko lankidetzan eta gizarteraldaketarako hezkuntzan lan egiten dugu. 1988tik, garapenerako lankidetzak kalitate onekoa izan dadin sustatzen aritu gara, hala instituzio publiko eta pribatuetan, nola Koordinakundeko kide diren GGKE-etan. Laguntza ematen diegu erakundeei beren lanean, eta haien ahalmen politikoak eta teknikoak areagotzen laguntzen diegu. Gainera, gure ingurunean eraldaketa soziala gauzatzen laguntzen dugu, horrela mundu-mailan ere aldaketak lortzeko. Horretarako, gure jardueren ardatz izaten dira, besteak beste, herritarrengan elkartasunaren kultura sustatzea, gure inguruan eta munduko herrialde zaugarrienetan berdintasun eza eta pobrezia eragiten dituzten egiturak alda daitezkeen bultzatzea, parte-hartzea sustatzea, eta eztabaida kritikoa bultzatzea, gure garapen-eredu patriarkal eta neoliberalak berdintasun ezarekin eta pobreziarekin duen loturaz. Gure ustez, pertsonen eta herrialdeen garapena oztopatzen duten mekanismoak buruz hezten, sentsibilizatzen eta kontzientziatzen gaitu lankidetzak.

Justizia sozialaren alde lan egiten dugu, genero-ekitatean oinarritutako giza garapen iraunkor baten alde, pertsonen bizia eta duintasuna politiken ardatz bihurtuz, beste lehentasun batzuen aurretik. Giza garapena eragozten duten oztopoak ezabatzearen herri pobretuekin batera lan egitea, horixe da gure ustez garapenerako lankidetzak, eta horrela aritzen gara Euskal Autonomia Erkidegotik (EAE). Prozesuaren oinarria beti dira elkartasuna, elkarrekikotasuna, eskuzabaltasuna eta doakotasuna, eta inoiz ez transferentzia ekonomiko hutsa.

Honako hauek dira gure hiru ekintza-lerro nagusiak: sektorea eta gure erakundea bera sendotzea, euskal lankidetzak-politika defendatzea eta herritarren informatzea eta eraldatzea, kontzientzia kritikoa sortze aldera. Gure iritziz, sustatu beharrekoak dira demokrazia partizipatiboa, independentzia, gardentasuna, koherentzia eta genero-ekitateak. Horretarako, topaketarako, eztabaidarako eta gogoetarako eremuak bideratzen ditugu, jarrera eta irizpide komunak adosteko. Halaber, aliantzak iruten ditugu gure xede berak dituzten beste mugimendu sozial batzuekin.



Euskadiko GGKE-en Koordinakundea nahiz hango kide diren erakundeak **Jarrabide Kode komun** bati jarraituz aritzen gara; hain zuzen ere, kode horretan daude jasota gure lana gidatzen duten printzipioak eta balioak. Batzar Orokorra da erabakiak hartzeko esparru nagusia, eta Koordinakundeko kide diren GGKE-ek osatzen dute. Gutxienez urtean behin biltzen da, dagokion ekitaldiko irizpideak eta lan-ildoak finkatzeko. Lurralde Batzarrak Arabako, Bizkai eta Gipuzkoako hiru ordezkartzen gobernu-organoak dira, eta lurralde bakoitzean kide diren erakundeek osatzen dituzte. Gobernu Batzordea erakundearen organo exekutiboa da, eta jarduerak programatzen eta zuzentzen ditu, Batzar Orokorrak zehaztutakoaren arabera. Bestalde, lantaldeak kide diren GGKE-ek osatuta daude, eta erakunde guztientzat lan egiten dute zenbait esparrutan, esate baterako: politikan, genero-arloan, komunikazioan, mobilizazioan eta gizarte-eraldaketarako hezkuntzan. Hiru lurralde-ordezkarizetatik, eta lantalde teknikoak lagunduta, aipatutako espazio horietan adostutako erabakiak gauzatzen dira, EAEko lankidetzaren alorreko GGKE-ek, erakundeei eta eragileei zein herritarrei informazio- eta aholkularitza-zerbitzua emateaz gainera.

1999az geroztik, Espainiako Garapenerako Erakundearen Koordinakundeko kide gara. 2009an, Eusko Jaurlaritzak Ignacio Ellacuria saria eman zigun, garapenerako lankidetzan egindako lanagatik. Euskararekin dugun konpromisoaren erakusle, Araban eta Bizkaian *Euskararen bidean* ziurtagiria daukagu, eta Gipuzkoan, *Zerbitzua euskaraz* ziurtagiria, biak *Bai Euskarari* elkarteak emanak. •



Gure **webgunean** eta **Youtubeko kanal** honetan, 2019an egin dugun lana laburbiltzen duen bideoa ikus dezakezu.

Gure jarduerak



Generoa

Gure jardun guztian zeharka genero-ikuspegi bermatuta dagoela zaintzen dugu, arlo hori lantzen dugu erakunde publikoekin, eta laguntza eta prestakuntza ematen diegu arlo horretan GGKE-ei eta beste eragile sozial batzuei. Hona hemen guk gauzaturako zenbait jarduerak:

> Gure erakundearen *Sexu-jazarpeneko eta sexuan eta sexu-orientazioan oinarritutako jazarpeneko egoeretan prebentzioa lantzeko eta esku hartzeko protokoloa* bukatu dugu, eta Batzar Orokorrak onetsi du jada. Diziplina anitzeko talde batek landu du protokoloa, eta parte hartzeko espazioak sortu

ditugu. Tresna horrekin, esparru horretan gure erakundeetan eta kide diren erakundeetan gerta daitezkeen jokabideak prebenitu eta desagerrarazi nahi ditugu, eta babes-esparru bat eman nahi diegu indarkeria mota horien aurrean, sektorearekin lotutako pertsona guztiei.

> Gure Genero Politikari jarraitu diogu, eta betetzen dela zaindu dugu.

> Euskadiko GGKE-en Koordinakundeak parte hartu duen erakundearen dokumentuetan egin dituen ekarpen guztietan, genero-ikuspegi sartzeko zela bermatu dugu.

> Halaber, Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen aurrekontuetan ere genero-ikuspegi txertatu dugu, eta aurrerapausoak eman ditugu lanketa horretan, genero-ekitatearekin dugun konpromisoaren erakusgarri, eta kide diren erakundeei arlo horretan bidea irekitzeko asmoz. Zehazki, aurrerapauso handiak egin ditugu tresna baten konfigurazioan. Tresna horrek, test baten bidez, genero-ikuspegi gure erakundeetan zer neurritan sartuta dagoen neurtzen du, jardueretan zenbaterainoko zeharkakotasuna duen aztertuz. Horretarako, Yolanda Jubetoren laguntza izan dugu; Jubeto UPV/EHUko irakaslea da, arlo horretan aditua.



> Gure **Genero Politikak** eskatzen duen bezala, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluan gure erakundea ordezkatzeko duen pertsona batek genero-arduradunaren postuari eutsi dio.

> Harreman instituzionalei eta genero-ekitateari dagokienez, bilerak egin ditugu Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako genero-arduradunarekin, lan-agendak partekatuzko, informazioa trukatzeko eta elkarrekin lan egiteko bideak aztertuzko.

> Lankidetzaren alorrean genero-ikuspegia zeharkako bihurtzeko lanarekin jarraituz, Genero Taldeak prestakuntza-prozesu bat gauzatu du, GGKE-etako emakumeen norberaren eta kolek-

tiboaren ahalduntzea lantzeko. Lau saio egin ditugu, eta honako gai hauek landu ditugu horietan: genero-errekiko erresistentziak aztertzea GGKE-etan, botere ikusgarria eta ezkutukoa, asertibitate feminista ahalduntzeko gako gisa eta gatazkak kudeatzeko estrategiak genero-ikuspegitik, besteak beste.

> Halaber, genero-ikuspegia sartu dugu gure komunikazio-lanean, ikuspuntu eta edukien bidez, bai eta antolatu ditugun prestakuntzetan eta jardunaldietan ere. Gainera, generoari buruzko prestakuntza-ekintzak egin ditugu, gure erakundeari, beste GGKE eta kolektibo batzuei, erakundeetara, Euskadiko lankidetzatarako eragileei eta gizarte osoari, oro har, bideratuta.



Ecuador Etxea



Eragin politikoa

Erakunde publikoekin eta alderdi politikoeekin lan egiten dugu, kalitate oneko lankidetzaz-politika deszentralizatua sustatzeko eta haren balioa azpimarratzeko:

> Harreman egonkorak ditugu lankidetzaz-politikak lantzeaz arduratzen diren eragileekin. Azpimarratzekoak dira, adibidez, honako hauekin egiten ditugun bilerak: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundietako lankidetzaz-arloekin, eta Gasteizko, Bilboko, Donostiako eta beste zenbait udalerrietako udalekin. Bilerak egiten ditugu, orobat, oposizioko taldeekin, Eusko Legebiltzarrean, Batzar Nagusietan eta hiru hiriburuetako udaletan. Era berean, elkarrizketak izan ditugu EAEko alderdi politiko nagusietako zuzendaritza-batzordeekin, eta agerraldiak egin ditugu zenbait erakunderen aurrean, besteak beste, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen eta Berdintasunaren Batzordean, Gasteizen (irailaren 16an), eta Gipuzkoako Batzar Nagusietan (otsailaren 7an).

> 2019ko udal-, foru- eta europar-hauteskundearen harira, gure **eskakizunak** helarazi dizkiegu alderdi politikoei, haien hauteskunde-programetan sar ditzaten. Gainera, maiatzaren 21ean, beste kolektibo eta sare batzuekin batera, *Politiken koherentzia* mahai-ingurua antolatu dugu Gasteizen; han, zenbait gairi buruz eztabaidatu dute alderdi politiko nagusietako hautagai batzuek. Hauteskundearen ondoren, eta behin gobernuak eratuta, talde sortu berriekin bildu gara, gure erakundea ezagutzera emateko, eta batera lan egiteko prest gaudela adierazteko.



Eusko Legebiltzarra




> Orobat, ekarpenak egin ditugu zenbait alderidiren eta erakunderen hainbat dokumentutan (araudi-esparruak, deialdiak...).

> Ordezkaritza aktiboa dugu elkarrizketarako eta parte hartzeko zenbait eremutan, eta horien agenden jarraipena egin dugu, eta jarrerak, proposamenak eta ekarpenak aurkeztu ditugu. Horien artetik, azpimarratzekoak dira honako hauek: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorea; Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua (eta haren Batzorde Iraunkorra); Kanpo Ekintzarako Batzordea; Lankidetzarako Udal Kontseiluak Bilbon (eta haren Batzorde Exekutiboa), Donostian (eta haren Batzorde Iraunkorra) eta Gasteizen (gaur egun, *Elkargune* deritza); Gasteizko Gizarte Kontseilua; Arabako Foru Aldundiaren *Eskutik Mundura* prozesua; eta Elkarriketa Zibilerako Mahaia.

Zehazki, azpimarratu nahi dugu Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua txosten bat egiten hasi dela, EAEko erakunde publikoetan politiken koherentzia-maila aztertzeko. Lan hori egiteko, lantalde bat sortu da, eta gure sareko sei ordezkari parte hartzen dute. *Eskutik Mundura* tresnen lantaldean parte hartu dugu, Donostiako Lankidetzarako Udal Kontseiluan politiken koherentziarako talde bat osatzea proposatu dugu, eta Bilboko Lankidetzarako Udal Kontseiluan talde bat sortu da, ekintza humanitarioaren jarraibideak jasotzen dituen dokumentu bat adostu duena. Gipuzkoan, Foru Aldundiak sustatuta, eragileek osatutako parte hartzeko espazio ez-formal bat eratzen eta zehazten lagundu dugu, GGKE-ek lurralde horretan egiten duten papera nabarmentze aldera.

> Erakundeek garapenerako bideratutako laguntza ofizialaren ehuneko kalkulatzen sistema homogeen bat ezartzeko proposamena sustatzen jarraitu dugu. Alde horretatik, gure helburua da, modu malgu batean, nazioko produktu gordinaren % 0,7 izateko adostasuna lortzea nazioartean.


> Erakundeen aurrekontuen osaketan eragiten saiatu gara, gobernu-taldearen hasierako proposamenetik hasita, eta oposizioko alderdi politikoak ere kontuan hartuta. Zazpi euskal erakunde nagusiek lankidetzara bideratutako aurrekontuen zenbatekoan jarri dugu arreta bereziki.



> Jarraipena egin diegu erakunde nagusien ekimenei, bakoitzak bere tokitik eta aukeretatik, 2030 Agendako Garapen Iraunkorrerako Helburuak lortzen lagundu dezan. Gainera, erakunde horietan lankidetzaren alorreko legedia betetzen den ala ez aztertu dugu.

> Garapenerako politiken koherentziaren arloa landu dugu erakundeekin, eta politika horien jarraipena egin dugu. Gobernu baten ekintzen multzoak helburutzat hartu behar du lankidetzaren eragina hobetzea. Gobernuek ziurtatu egin behar dute politika guztiak bat datozela giza garapen bidezko eta iraunkorra lortzeko helburuekin, eta pobrezia eta desparekotasunen aurkako borrokarekin, esku-hartze bakar batek ere ez ditzan geldiarazi edo bertan behera utzi lankidetzaren bidez lortutako aurrerapenak. Azpimarratu nahi dugu martxoaren 12an bilera bat egin dugula ADEGIrekin, jakiteko enpresa-esparrua zer urrats ari den egiten giza garapen iraunkorra barneratze aldera.

> 2030 Agenda. Euskadiren eta bertako erakundeen papera mundu globalean izenburua duen **Eragin politikorako eredu dokumentua** bukatu dugu, eta Batzar Orokorrak onetsi du jada. Gainera, dokumentu horren alderdi nagusiak laburbiltzen dituen **grafismo** bat egin dugu, hura ulergarriago egiteko.



Mobilizazioak eta gizarte-eraldaketarako hezkuntza


Gizarte-eraldaketarekin dugun konpromisoaren harira, mobilizazioak eta ekintzak antolatu ditugu, sentsibilizatorako jardunaldiak eta jarduerak egin ditugu, eta GGKE-ek eta beste kolektibo edo eragile batzuek sustatutako egitasmoak babestu ditugu:

> Gasteizko Udalarekin lankidetzan, eta *Fill in Culture* kolektiboaren parte-hartzearekin, horma-

irudi bat egin dugu euskal lankidetzaren 30 urteko ibilbidea eta Gasteiz hiriak politika horiei egindako ekarpenak omentzeko. Ariznabarra kiroldegia kanpoaldean egin dugu, eta otsailaren 11n inauguratu da.


Gainera, *30 años abriendo puertas al mundo* aldizkaria argitaratu dugu, euskal lankidetzaren 30

urteko ibilbidearen oroigarri gisa. Aldizkarian, denboraldi horretako lorpen nagusien eta sektorearen erronken berri eman dugu, eta elkartasunari buruz hausnartu dugu pertsona ezagun batzuekin. Hala-ber, eduki hauek ere landu ditugu, besteak beste: Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen ibilbidea, eraldaketa-xede berak dituzten sareak eta erakunde publikoek eta GGKE-ek egindako ekarpenak.



Deskargatu euskal lankidetzaren 30. urteurrenaren aldizkaria **hemen**.

> Donostian urtero egiten den *Mundu zabala*, *errealitate anitz* sentsibilizazio-jarduera udal-, foru- eta europar-hauteskundera lotuta egon da. Hamar bideo egin ditugu, eta, horien bidez, elkartasun-botoa emateko hamar arrazoi zabaldu ditugu. Gainera, beste bideo batean, sektoreak beste garapen- eta gizarte-eredu bat lortzeko egiten dituen proposamenak bildu ditugu. Maiatzaren 20an aurkeztu dugu kanpaina hori, Donostian, komunikabideei zuzendutako kale-ekintza batean.

 **Gure Youtube kanalean ikus ditzakezu bideoak.**

> Amurrioko Udalarri lagundu diogu Amurrioko XIV. Elkartasun Azoka antolatzen; maiatzaren 31n izan da, Amurrión, eta azokaren xedea da herritarrek elkartasunera eta lankidetzara hurbiltzea.




> Urriaren 17a Pobreziaren Aurkako Nazioarteko Eguna da, eta, Zero Pobrezia kanpainaren esparruan, pobrezia eta berdintasunik eza eragiten dituzten arrazoiak salatu ditugu. *Eskubide guztiak emakume guztientzat* lemapean, zenbait kolektibok bat egin dugu Pobreziaren Aurkako astean:

Gipuzkoan, honako jarduerak antolatu ditu Donostiako Zero Pobrezia plataformak, guk dinamizatutakoa mugimendua, hain zuzen ere: urriaren 25ean, goizez, kalte-ekintza bat egin da Donostian, Kontukantoi clown taldearen parte-hartzearekin. Arratsaldean, ohiko bizikleta-martxa egin da, Haizearen Orrazitik Donostiako Bulebarreraino, Txita Sound Systemek girotuta. Hilaren 22an, Donostiako Zero Pobrezia plataformak, Donostiako UPV/EHUko Gizarte Hezkuntzako graduarekin lankidetzan, prestakuntza-saioak eman ditu. Azaroaren 11n, Donostiako Kresala zineklubarekin batera, zine-forum bat antolatu du plataforma horrek Donostiako Trueba zineman; *Notre étrangère* film luzea eta *Chica seria y responsable* film laburra proiektatu dira. Sare horrek, gainera, beste zenbait jardueratan ere parte hartu du: Donostian martxoaren 10ean egin den Lilaton herri-lasterketan (*Amodio deskontrolatua* lelopean); SOS Arrazakeria elkarteak ekainaren 9an Errenterian antolatutako Munduko Arrozak ekitaldian; edo ekainaren 20an, Pertsona Errefuxiatuen Egunean, zenbait eragile sozialek Donostian antolatutako salaketarako herri-bainuan (*Busti zaitetz Giza Eskubideen alde* lemapean).



Bizkaian, urriaren 17an, Euskadiko erakundeek, kolektibo sozialek, auzo-elkarteek eta sindikatuek manifestazio bat antolatu dute Bilbon, lelo honekin: *La pobreza: un problema de derechos humanos RGI murrizketarik ez!*

> Aguraingo Udalarekin lankidetzan jardun dugu, azaroaren 11tik 17ra Aguraingo Elkartasun Astea antolatzeko. Mundubat elkartearen *Ez neskameak, ez etxekotuak: Etxeko eta zainketetako emakume langileen eskubide guztien aitortzarako eta tratu duinerako* erakusketa eraman dugu udalerrira horretara. Eta hilaren 15ean, mahai-inguru bat antolatu dugu, Mundubaten eta Alai Elkartearen parte-hartzearekin, izenburu honekin: *Bizitza erdigunean: etxeko langileei tratu duina eman eta haien lana aitortzearen alde, eta gizarteak zaintzak balioetsi ditzan*. Gainera, ondoren, elkartasunezko pintxo-potea egin da Mali Djekafo emakume-elkarteak, Medicusmundi Álava/Arabak eta Manuel Iradier Elkarte Afrikanistak antolatuta.



> Azaroaren 28an, *Gasteiz konexioan* sentsibilizazio-jardunaldia antolatu dugu hiri horretako Aldabe Gizearte Etxean. Maribel Salas aktorea izan da aurkezle, eta Green Valley taldearen emanaldi akustikoa ere izan da. *El cambio climático lo cambia todo. Bizitza larrialdi klimatikoaren menpe* izenburupean, larrialdi klimatikoak gure eguneroko bizitzan eta euskal lankidetzak jarduten duen herrialdeetan zer ondorio global dituen erakutsi nahi izan dugu. Elkarte hauek parte hartu dute: Ekologistak Martxan, *Acción Ecológica de Ecuador*, Bionekazaritza Arabako Nekazaritza Ekologikoaren aldeko elkarte, *Fridays For Future*/Gazteak klimaren alde, eta Asier Kidam magoa.

> Abenduaren 10ean, Giza Eskubideen Nazioarteko Egunean, emakumeei eta migrazioei buruzko forum labur bat antolatu dugu Bilbon. Kaleko zinema txiki eta goxo bat muntatu dugu Kale Nagusian, eta *Chica seria y responsable* eta *Promesas que Halimo no pudo cumplir* film laburrak proiektatu ditugu. Parte hartu dute Gipuzkoako SOS Arrazakeria elkarteko Etxeko Langileen Batzordeak eta Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformako Zinema Batzordeak. Hori guztia Munduko Emakumeak elkarteak prestatutako txokolate beroaz lagunduta.



> Bestalde, heziketa-zentroetan zenbait lantegi antolatzen lagundu dugu. Gure *Zein da zein?* kanpainaren esparruan, Nazioarteko Elkartasuna eta Bakerako Lankidetzaren Batzarrea erakundeek haien proiektuen eta esperientzien berri eman dizkiete Francisco de Vitoria BHIko eta Gasteizko *Corazonistas* ikastetxeko ikasleei. Gainera, zenbait ikastetxek sentsibilizazio-lantegiak eskatu dituztenez, proposamen zehatzak luzatu dizkiegu GGKE-ei; hori horrela, Gosearen Aurkako Ekintza erakundeak zenbait saio egin ditu Gasteizko Mendebaldeko BHI. Halaber, Kanpezuko Mendialdea ikastetxearen eskaera bat ere bideratu diegu erakundeei, eta Manuel Iradier Elkarte Afrikanistak eta Bakerako Lankidetzaren Batzarrea elkarteek parte hartu dute han.

Helburu berak dituzten beste gizarte-mugimendu eta -eragile batzuekin ere lan egiten dugu sarean, horrek ekintza gehiago egiteko eta gehiago eragiteko aukera ematen baitigu:

> Emakumeen giza eskubideen eta genero-ekitatearen defentsan aritzen direnen sareekin aliantzak sendotzen jarraitu dugu. Bizkaiko martxoaren 8ko (Emakumeen Nazioarteko Eguna) koordinakunde feministan parte hartzen dugu. 2019an, honako lelo hau izan zuten mobilizazioek: *Heteropatriarkatu kapitalistari planto!* Era berean, Bizkaiko azaroaren 25eko (Indarkeria Matxistaren aurkako Nazioarteko Eguna) koordinakunde feministan ere parte hartzen dugu, eta hau izan zen 2019ko leloa: *Dena esanda dago. Todo por hacer*. Donostian ere aktibatu gara, mugimendu feministan aktiboki diharduten

eta GGKE kideetako partaide diren pertsonen bidez, azaroaren 25eko manifestazioan parte hartzeko.

> Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartan parte hartzen dugu. Gizarte-mugimenduek eta sindikatuak osatutako plataforma bat da, eta haren helburua da gure ekonomia eta baliabideak herritarren zerbitzura jartzea, pertsonen bizi-baldintza duinak izan ditzaitez oinarriko eskubide sozialak aitortzeari eta betetzeari esker. Haren ekintzen artean, azpimarratzekoa dira apirilaren 13an *Pentsio publiko duinen alde* lemapean euskal hiriburuetan egindako manifestazioak.

> Parte hartzen dugu, halaber, *Euskal Herriak TTIPari EZ!* izeneko plataforman; *Euskal Herriak kapitalari planto!* izenez dihardu gaur egun. Haren zenbait ekintzatan parte hartu dugu: martxoaren 14an eta 15ean, hitzaldia eta kontzentrazioa Bilbon, hurrenez hurren, *BBVA zuen aberastasuna gure miseria* lemapean; martxoaren 29an, Bilbon, *Iberdrola zuen aberastasuna gure miseria*; maiatzaren 22an, Bilbon hau ere, plataformaren helburuen aurkezpena (beste batzuen artean, erantzun sozial bat ematea eraso kapitalistari, eta salaketa eta mobilizazio soziala koordinatzea eta egituratzea).

> Gipuzkoako SOS Arrazakeria, Medicus-mundi Gipuzkoa eta beste zenbait kolektiborekin batera, arrazismoaren eta xenofobiaren aurkako XXIII. Martxa antolatzen lagundu dugu. *Arrazakeriaren aurkako zure eslogana hautatu* lemapean, Donostiako kaleetara atera da martxoaren 24an, pertsona migratzaileen eskubideak aldarrikatzeko.



> Beste kolektibo batzuekin batera, Donostiako Udalarri lagundu diogu Donostiako Giza Eskubideen XVII. Zinemaldia antolatzen; hiriburu gipuzkoarrean egin zen apirilaren 5etik 12ra.



Ecuador Etxea

> Bizkaiko Ongi Etorri Errefuxiatuak plataforman parte hartzen dugu. Plataforma horrek pertsona errefuxiatuekiko eta migratuekiko elkartasun- eta salaketa-ekintzak gauzatzen ditu. Hortaz, plataformaren ekintzetan lagundu dugu; esate baterako, *Neofaxismoaren aurka, herrien, pertsonen eta giza eskubideen besarkada* ekimenean parte hartu dugu (Durangon, maiatzaren 5ean).



Gizarte-eraldaketarako hezkuntza funtsezko zutabeetako bat da GGKE-en lanean, horiek al-daketa sozialaren alde eta mundu zuzenago eta bidezkoago baten alde lan egiten duten eragileak diren heinean. Hau da gauzatu dugun lanaren laburpen bat:

> GGKE-ek eta Gipuzkoako UPV/EHUko campuseko unibertsitate-eragileek osatzen dute [Unibertsitate Kritikoa Sarea](#). Ahaleginak koordinatzea, baliabideak optimizatzea eta gizartean ahalik eta eragin handiena lortzea ditu xede. Azpimarratzekoa da, halaber, *Hamaika ahots* jardunaldia; apirilaren 4an egin dena Zuzenbide fakultatean, egungo gizarte-erronkei aurre egingo dien unibertsitate publiko bat sortzen lagunduko duen espazio bati buruz hausnartzeko eta hura sortzeko.

> Gure [Hezkuntza Baliabideen Katalogoa](#) eguneratu dugu Interneten; kide diren GGKE-en hainbat material biltzen dituena. Tresna hori erreferentzia erabilgarria da ikastetxeentzat eta partikularrentzat, eta baliabideetan bilaketa zehatzak egiteko aukera ematen du, gai jakinen edo hartzaileen adin-tarteen arabera. Gainera, hezkuntza-erakunde nagusiei ere ezagutarazi diegu material hori.

> Bizkaiko gizarte-eraldaketarako hezkuntza-taldeak lanean jarraitu du, eta zenbait saio egin ditu etorkizunean gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren esparru-dokumentua izan daitekeen dokumentu baten oinarri komunak finkatzeko.



Sektorea eta zerbitzuak sendotzea

Jendeari, GGKE-ei eta erakundeei emandako arreta

> Koordinakundeko kide diren erakundeei, besteak beste, gai hauei buruzko informazio- eta aholkularitza-zerbitzua eman diegu: lankidetzak, diru-laguntzen deialdiak, GGKE-entzako zerbitzuak eta baliabideak, enplegu- eta boluntarioritza-eskaintzak, prestakuntza, materialaren mailegua, genero-ekitatea, komunikazioa, eragin politikoa, gizarte-mobilizazioa, gizarte-eraldaketarako hezkuntza eta administrazio-izapideak. Gainera, materialak utzi dizkiegu maileguan.

> Orientabidea eman diegu informazioa eta aholkuak behar zituzten pertsoneri, batez ere GGKE-etan boluntarioritza-lanak egiteari buruz, elkartasun-gakoan hegoaldeko herrialdeak bisitatzeko aukerari buruz, etab. Horretarako, gainera, *Hegoaldearekin elkarlanean aritu nahi duzu? Nola parte hartu* txostena eguneratu eta berriro diseinatu dugu.

> Lan-poltsa kudeatu dugu, eta jasotako dohaintzak bideratu ditugu. GGKE-ekin aritzen diren eta Koordinakundeko kide diren erakundeei beherapenak, hobariak edo ekarpen solidarioak ematen dizkieten eta sozialki irizpide arduratsuak dituzten enpresei buruzko informazioa bildu dugu.

> Barne Koherentziako Taldeak **Barne Araudien Erregimenaren** berrikuspena bukatu du, eta Batzar Orokorrak onetsi du jada.

> Bi Batzar Orokor egin ditugu (ekainaren 19an Bilbon, eta urriaren 4an Donostian), bai eta 20 Lurralde Batzar ere (8 Araban, 4 Bizkaian eta 8 Gipuzkoan). Batzar horietan, eta gainerako lantaldeetan, GGKE-ek parte-hartze aktiboa izan dute.

> *Euskaraldia* kanpainaren 2018ko lehen edizioaren ebaluazio-bileretan parte hartu dugu, bai eta 2020koaren prestaketa-bileretan ere.

> Gure egoitza, Araban, Gasteizko Simone de Beauvoir Elkartearen Etxean dago; Bizkaian, Bilboko Boluntaren Ganbara elkargunean; eta Gipuzkoan, Donostiako lokal batean, beste erakunde batzuekin batera. Testuinguru horri esker, beste pertsona batzuegan eta hartzailere gehiagorengana eta askotarikoengana iristen gara. Gainera, Gasteizko Udalak utzitako lonja bat ere badaukagu, Koordinakundeko kide diren GGKE-en materialak gordetzeko.



> Halaber, zenbait gairi buruzko bederlatzi jakinarazpenekin, kontzentrazioekin, manifestazioekin eta kale-ekintzarekin bat egin dugu; batzuk kide diren erakundeek dira, eta beste batzuk, berriz, kanpoko kolektiboak.

> Sareen Sarean parte hartzen dugu. Horrek Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundearen sareak biltzen ditu, eta haren xedea da gizarte kohesionatua, inklusiboa, solidarioa eta partizipatiboa sustatzea, pertsona guztion eskubideak errespetatuko dituen gizarte bat, hain zuzen ere. Azpimarratu nahi dugu maiatzaren 13an Gasteizen ospatutako Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Eguna, EITBrekin sinatutako lankidetzaren hitzarmena sektorea sustatzeko, eta gure ekarpenak Sareen Sareak aurkeztutako eskari-dokumentuari, hauteskudeen testuinguruan alderdi politikoei zuzendutakoa. Gainera, sare horretako kide garez, Elkarriketa Zibileko Mahaian dugun parte-hartzea koordinatuago dago espazio horretan parte hartzen duten hirugarren sektoreko gainerako erakundeekin.

> Espainiako Garapenerako Erakundearen Koordinakundeko kide gara, eta, beraz, haren lanaren jarraipena egin dugu, eta haren ekimenak bultzatu ditugu. Azpimarratzekoak dira apirilaren 25ean Madrilen egindako Batzar Orokorra, azaroaren 7an Madrilen egindako zuzendaritzaren eta presidentetza biltzura, azaroaren 8an eta 9an Madrilen egindako Koordinakunde Autonomikoen Sarearen biltzura, bai eta eragin politikorako biltzurak eta Komunikazio Taldean sartzearekin lotutakoak ere. Gainera, Politiken Koherentzia Indizearen aurkezpenera gonbidatu dute gure erakundea (azaroaren 16an, Madrilen). Indize hori tresna berritzailea da, eta estatuen arteko alderaketak egiteko Giza Garapeneraren Indizea gainditzen duten neurketa-tresna bat eskaintzen du.


> Gainera, Euskadiko Finantza Etikoaren Elkartearen kide gara. Haren helburua da Euskadin banka etikoaren sistema bat finkatzen laguntzea.



> Bitartekaritza-lanak egin ditugu GGKE-en eta erakundeen edo beste erakunde eta eragile batzuen artean; lan horretan, jarduerekin, ekimenekin eta espazioekin lotutako proposamenak bideratu dizkiegu erakundeei, haietan parte hartu ahal izateko, eta elkar hobeto ezagutu eta hobeto koordinatu ahal izateko. Horien artean, honako hauek azpimarratu nahi ditugu:

Arabak, Arabako Foru Aldundiarekin batera, eta Eskualdetik Mundura prozesuaren esparruan, topaketa bat egin dugu Amurrion, abenduaren 16an, udalerriko emakume talde baten eta toki-erakundeen eta hegoaldeko herrialdeen arteko lankidetzaren alorrean jardunbide onak dituzten GGKE arabarren artean. Honako esperientzia hauek aurkeztu dira: Burgeluko Argia emakume-elkartea eta Xochilt Acalt emakume-elkarte nikaraguarra; Manuel Iradier Elkarte Afrikanista eta Haaly Pular migratzaile-elkartea; eta ALBOAN eta UDAPA.

Gipuzkoan, lan handia egin dugu hango erakunde, sare eta plataforma ugariak koordinatzen, zenbait alderditan lurralde deszentralizatu samarra baita, eta maiz eskualde-mailan funtzionatzen baitu. Gipuzkoako zenbait udalekin elkarlana sustatzen jarraitu dugu, lurralde horretan elkarte-mugimendua oso aktiboa baita; horren erakusgarri dira udal-mailan ere badauden jardunbide egokiak.



Prestakuntza eta jardunaldiak

GGKE-ek zer prestakuntza-behar dituzten aztertu dugu, eta erakundeen eta beste zenbait eragileren proposamenak aztertu ostean, honako ekintza hauek antolatu ditugu:

- > Martxoaren 9an, Gasteizko Udalarekin eta Arabako Foru Aldundiarekin batera, *Geure burua aurkitzen: Garapenerako GKE-en (GGKE) eta pertsonen zein elkarte profesionalen arteko topaketa- eta ezagutza-tailerraren II. jardunaldia* egin dugu Gasteizen. Xedea izan da bi eragileen artean esperientziak ezagutzea, eta elkarlanean jarduteko aukerak sustatzea.
- > Maiatzaren 8an, *2030 Agenda Euskadin: abian den tren*. *Gizarte zibilaren papera* jardunaldia egin dugu Gasteizen, agenda horren irismena partekatu ahal izateko, eta gure hurbileko esparruan zer ezarpen-maila duen eta zer eragilek parte hartzen duten aztertzeke.
- > Irailaren 20an eta 21ean, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin eta Hegoa Institutuarekin batera, *Pedagogia politikarik gabe? Zenbait hausnarketa herri-hezkuntzatik, metodologia feministetatik eta metodologia dekolonialetatik abiatuta* jardunaldiaren II. edizioa egin dugu Gasteizen, gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren alorrean. Topaketa horien xedea izan da pedagogia kritiko eta partizipatibo on batekin hezteak dakarren duintasuna berreskuratzea.



> Gernika Gogoratzuz, EHUgune, REAS Euskadi eta Mugarik Gabeko Ekonomialariak elkarteekin elkarlanean jardun dugu *Bakearen ekonomia, euskal enpresa eta giza eskubideak III. Laborategia* antolatzeko; Bilbon egin da urriaren 31n.

> Halaber, kide diren GGKE-ek beraiek emandako prestakuntzen saio berri bat egin da; saio horien xedea da ezagutzak eta esperientziak partekatzea, eta ezagutza partekatuen sare bat sortzea, sektorea indartze aldera. Hori horrela, azaroaren 19an, *Eraldaketa sozialerako komunikazioa* saioa egin da Bilbon, KCD-GGKEak bideratuta.

> Abenduaren 12an, Garapenerako Lan-kidetzaren Euskal Agentziarekin batera, erakunde-barneko IV. genero-jardunaldiak antolatu ditugu Donostian, izenburu honekin: *10 urte igarota, feministagoak al gara? Antolaketa-prozesuetako aldaketak, ikaskuntza, zailtasunak, erronkak, irismena eta abar.* Arlo horretan egindako aurrerapenei eta ekitatearen aldeko ekintza-planei buruz hausnartzea eta beste esperientzia batzuk ezagutzea izan da xedea.

Beste eragile batzuek antolatutako kanpoko prestakuntza-saioetan ere izan da Euskadiko GGKE-en Koordinakundea, kasu batzuetan entzule gisa eta beste batzuetan partaide, hizlari edo laguntzaile gisa. Horien artetik, honako hauek azpimarratu nahi ditugu:

> Arabako Foru Aldundiak Gasteizen antolatutako bi elkarrizketatan parte hartu dugu, Garapen Jasangarriaren aldeko Arabako Aliantzaren esparruan: *Erakundeek 2030 Agendaren komunikatzaile izateko duten eginkizuna* (martxoaren 13an) eta *Hemen eta munduan. Beste eragile eta lurralde batzuekin itunak egitearen garrantzia* (apirilaren 3an).

> Martxoaren 21ean, UNRWA Euskadik Gasteizen antolatutako saio batean parte hartu dugu, euskal herritarren migrazioa nola hautematen duten jakiteko azterketa batean gure ekarpena egiteko.



Ikerketak

Lankidetzaren sektorea hobetzen eta sendotzen laguntzeko, honako ikerketa hauek sustatu eta egin ditugu:

> **Garapenerako politiken koherentzia. Eusko Jaurlaritzaren enpresa-nazioartekotzerako politikaren analisia** azterlanaren ondorioak ezagutzera ematen jarraitu dugu. Azterlana Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen eta Latinoamerikako Multinazionalen Behatokiaren artean egin genuen 2017an.

> **Giza garapen iraunkorraren ikuspegia duten politiken koherentzia aztertzeko esparru bat definituz** izeneko ikerlana abiapuntu hartuta (Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen, *UNA Comunicación y Gestión* erakundearen eta Silvia Piris Lekuonaren artean egindakoa 2018an), **proposamen metodologiko** bat egin dugu, foru-aldundietan aplikatzekoa.

> **Enpresen nazioartekotzea babesteko beren politikari lotutako foru-aldundien jardunbideen koherentzia-printzipioaren betetze-mailaren gaineko txostena** idazten hasi gara. Azterlan aitzindaria da, eta, horrekin, jarraipena eman nahi zaio aurrez ildo horretan egindako lanari, eta zehaztasunez ezagutu nahi da enpresak nazioartekotzeko euskal politika. Latinoamerikako Multinazionalen Behatokiarekin batera egiten ari gara azterlan hori, eta 2020an bukatuko dugu.

> Inkesta bat egin dugu kide diren GGKE-en artean, sektorea zer egoeratan dagoen jakin ahal izateko. Azterlan horrekin, eta Indaga enpresaren laguntzaz, zenbait esparruri buruzko informazioa bildu dugu, honako hauei buruzkoa, besteak beste: erakundeari buruzko datuak, lankidetzaproiektuak, gizarte-eraldaketarako hezkuntzarekin lotutako proiektuak, giza ekintzak, finantzaketa-bideak eta genero-politikak.



Komunikazioa

Gizarte-eraldaketarako komunikazioaren ikuspegitik, gure inguruan eta mundu-mailan jarrera-aldaketak eragiteko eta injustizia ezak eta giza eskubideen urraketak salatzen dituzten ekintzak gauzatzen ditugu:

> Komunikabideei zuzendutako ekintzak egin ditugu, gure erakundearen jarduerari eta gure posizionamenduari ikusgarritasuna emateko. Horien artean, honako hauek azpimarratu nahi ditugu: prentsaurrekoak (maiatzaren 20an Donostian, hauteskunde-testuinguruan gure eskariak aurkezteko alderdi politikoei; urriaren 16an, Donostian baita ere, Pobreziaren aurkako Astea aurkezteko); prentsa-oharrak (euskal lankidetzaren 30 urteko ibilbidea omentzeko Gasteizen egindako horma-irudiaren inaugurazioa, martxoaren 8ko greba feminista, *Gasteiz konexioan* eta Giza Eskubideen Eguna Bilbon); iritzi-artikuluak... Horri guztiari esker, agerraldi nabaria izan dugu komunikabideetan.

> Astebururo parte hartu dugu Radio Euskadiko *Hágase la luz* eta *La galería* programetan, Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen eta kide diren erakundeen iritzi-zutabeen bidez.

> Irailaren 18an, Kooperanteen eguna ospatzen da. Koordinakundeko kide diren GGKE-etako pertsona kooperantei elkarrizketak egiteko aukera emateko komunikabideei, haiekin harremanetan jartzeko datuak biltzen dituen zerrenda bat eguneratu dugu, eta komunikabideei helarazi diegu. Gainera, lankidetzaproiektuei buruzko gure argazki-artxiboa eskaini diegu komunikabideei, **Irudi eta Mezuen Kodea Hegoaldeari Dagokionez** ikuspegitik irudiak egokiak izan ditzaten.

> Mezuak nola eguneratu eta berri behar diren hausnartzeko prozesu bat hasi dugu; lankidetzaren alorretik, oro har, eta GGKE-etatik, zehazki, hartzaileei igortzen dizkiegun mezuak ardatz hartuta. Xedea da herritarrekiko eta haien kezkekiko loturak sendotzea.

> Munduan gertatu diren larrialdi jakin batzuk direla-eta (Afrikako hego-ekialdean izandako Idai zikloia adibidez), GKEE-en lanari buruzko informazioa bildu dugu. Xedea izan da erantzuna ematea gizartearen, erakundeetara eta komunikabideen kontsultei, eta herritarren elkartasuna bideratzen laguntzea.



Sare sozial hauen bidez ere izan dezakezu gure jardueren berri: **Facebook, Twitter, Youtube, Vimeo** eta **Ivoox**.



> Gure webgunea etengabe eguneratu dugu, eta, astero, *Munduz Mundu* buletina bidali diegu izena emanda dauden pertsoneri. Gainera, kide diren GGKE-ek *Gure Gauzak* barne-buletina bidali diegu.

> Orobat, komunikazio-lana errazteko tresnak eskaini dizkiegu GGKE-ek; adibidez, bozeramaileentzako argudioak eta komunikabideekin harremanetan jartzeko datuak.

> 2018ko **memoria** eta **memoria-bideoa** argitaratu ditugu. Argitalpen hori funtsezkoa da, gardentasuna errazten duelako eta kontuak emateko bitartekoa delako ez ezik (eta hala dago jasota gure jokabide-kodean), baita gure jardunaren berri emateko bidea zaigulako ere. •



Gure argitalpen guztiak gure **webgunean** daude eskuragarri.




Gure **webgunea** euskal lankidetzarekin lotutako informazio guztiaren topalekua da. Honako hauek topa ditzakezu: jarduerak, GGKE-ak, lanpostuak, boluntarioritza-eskaintzak, diru-laguntza publikoen zein pribatuen deialdiak, artikulua, estekak, jardunaldiak, kanpainak, argitalpenak, jarrerak... Webgunean, gainera, alta egin dezakezu gure **Munduz Mundu** astekarrian.

Nortzuk gara*

* 2019aren amaieran.

Gure ekimenaren garapena aurrera ateratzeko ezinbestekoa den laguntzaren bultzatzaileak eskertzea gustatuko litzaiguke: lankideak eta boluntarioak, GGKEak, giza mugimenduak, komunikabideak, erakunde publiko zein pribatuak...



Gobernu Batzordea

Lehendakaritza: Sofía Marroquín, Oxfam Intermón. **Lehendakariordetza:** Eneko Calle, Bakea eta Duintasuna, eta Olatz Ecenarro, Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu (urteko une desberdinetan). **Idazkaritza:** Olatz Ecenarro, Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu, eta Mary Tere Guzmán, ALBOAN (urteko une desberdinetan). **Diruzaintza:** Jaime Bernar, Zabalketa. **Arabako ordezkaria:** Saioa Polo, Mugarik Gabe. **Bizkaiko ordezkaria:** Cristina Alba, KCD ONGD-Kultura, Communication y Desarrollo. **Gipuzkoako ordezkaria:** Laura Laborra, Medicusmundi Gipuzkoa.

Lan-taldeak

Euskadi

■ Generoa

Amaia Iguaran, Ayuda Mas. Silvia Felipe, Mundubat. Isabel Uría, SEADen Lagunen Elkarte Bizkaia. María Viadero, Mugarik Gabe. Mila Dominguez, ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación. Sonia González, Bakea eta Elkartasuna Euskadi. Sandra Delgado, ALBOAN. Nerea Uriarte, UNRWA Euskadi. Cristina Alba, KCD ONGD-Kultura, Communication y Desarrollo. Nora Ziarso, SETEM Hego Haizea. María Bravo, Lumaltik. Inés Eguino, Medicusmundi Bizkaia. Amaia Ruiz, Bakerako Lankidetzaz Batzarrea. Iratxe Palacín, Interred Euskal Herria. Mónica Vega, Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza. Mónica Oyarzábal, Proclade Yanapay.

■ Eragin Politikoa

Sofía Marroquín, Oxfam Intermón. Esther Calvo, Proclade Yanapay. Regina Zalbidea, FISC cooperación y desarrollo. Jesús Ochoa, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. Amaia Ruiz, Bilboko Elizbarrutiko Cáritas. Iñaki Orube, Mugen Gaietarik. Amaia Iguaran, Ayuda Mas. Alicia Aleman, ALBOAN. Eneko Gerrikabeitia, Mundubat.

Begoña de Juan, Mundu Bakean. Gonzalo Fernández, Bakea eta Duintasuna. Mónica Quintela, Farmacéuticos Mundi-Farmamundi. Iñaki San Miguel, Acción Contra el Hambre-Gosearen Aurkako Ekintza. Benja Ramos, Bakerako Lankidetzaz Batzarrea. Alberto Cereijo, SETEM Hego Haizea. Rafa Ferrer eta Jaime Bernar, Zabalketa. Ricardo Fernández, Medicusmundi Bizkaia. Josu Urrutia, Mundukide. Olatz Ecenarro, Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu. Irune Martínez, OSCARTE. Aitana Uribe eta Arantza Acha, Unesco Etxea. Mila Dominguez, ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación. Jesús González, Mugarik Gabe.

■ Aurrekontuak

Jesús Ochoa, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. Alicia Aleman, ALBOAN. Susana Piera, Mugarik Gabe.

■ Barne-koherentzia

Eneko Calle, Bakea eta Duintasuna. Esther Calvo, Proclade Yanapay. Rafa Ferrer, Zabalketa. Sonia González, Bakea eta Elkartasuna Euskadi.

■ Garapen Iraunkorrerako Helburuak

Arantza Acha eta Nekane Viota, Unesco Etxea. Patricia Ponce, Haurralde Fundazioa. Amaia Iguaran, Ayuda Mas. Patricia Solaun, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. Elena Fernández del Castillo, Elizbarrutietako Euskal Misionak. Irune Martínez, OSCARTE.

■ Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen sartzeko eskaera berrien Jarraipen Batzordea

Olatz Ecenarro, Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu; Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen Gobernu Batzordea ordezkatzuz. Yolanda Jubeto, UPV/EHUko irakaslea, kanpo eragile bat ordezkatzuz. Irene Molero eta Silvia de Gregorio, Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen Talde Teknikoa (urteko une desberdinetan).



Bizkaia

■ Eragin Politikoa

Sofía Marroquín, Oxfam Intermón. Esther Calvo, Proclade Yanapay. Regina Zalbidea, FISC cooperación y desarrollo. Amaia Ruiz, Bilboko Elizbarrutietako Cáritas. Amaia Iguaran, Ayuda Mas. Alicia Aleman, ALBOAN. Begoña de Juan, Mundu Bakean. Mónica Quintela, Farmacéuticos Mundi-Farmamundi. Benja Ramos, Bakerako Lankidetzaz Batzarrea. Rafa Ferrer eta Jaime Bernar, Zabalketa. Ricardo Fernández, Medicusmundi Bizkaia. Olatz Ecenarro, Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu. Sonia González, Bakea eta Elkartasuna Euskadi. Irune Martínez, OSCARTE. Eneko Gerrikabeitia, Mundubat. Jesús González, Mugarik Gabe.

■ Gizarte Eraldakerako Hezkuntza

Pepe Ruiz, Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza. Bea Pérez, Munduko Medikuek. Greta Frankenfeld, KCD ONGD-Kultura, Communication y Desarrollo. Joana López de Gereñu, Medicusmundi Bizkaia. Patricia Solaun, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. Lianella González, Oxfam Intermón. Mónica Oyarzábal, Proclade Yanapay. Oscar Pérez, Gazteak eta Garapena. Pablo Vidal, Farmacéuticos Mundi-Farmamundi. Iratxe Palacín eta Olga García, Interred Euskal Herria. Kepa Torrijos, SODEPAZ Euskadi Solidaridad para el Desarrollo y la Paz. Amaia López, Bakerako Lankidetzaz Batzarrea. Bea Plaza, Bakea eta Elkartasuna Euskadi. Irene Ortiz de Urbina, Solidaridad Internacional-Nazioarteko Elkartasuna. Pilar Oronoz, Zabalketa. Bárbara Ruiz, UNRWA Euskadi.

Gipuzkoa

■ Eragin Politikoa

Jesús Ochoa, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. Iñaki Orube, Mugen Gaietik. Iñigo Odriozola, TAU Fundazioa. Iñigo Eguren, Calcuta Ondoan. Xabier Martínez eta Lorea Undagoitia, Mugarik Gabe. Mónica González, Bakerako Lankidetzeta Batzarrea. Cristina Casado, Bakea eta Elkartasuna Euskadi.

■ Unibertsitate Kritiko Sarea

Kide diren GGKE hauek sare honetan parte hatzen dute:

Izaro Basurko, Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza. Javier Iñiguez eta Maialen Aginagalde, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. Gema Hierro, Medicusmundi Gipuzkoa. Patricia Ortiz de Zárate, Mugen Gaietik. Edurne Gallo, Calcuta Ondoan. Alberto Gastón, Emaús Gizarte Fundazioa. Yolanda García, Prosalus. Laura Roux, Haurralde Fundazioa.

■ Donostiako Zero Pobrezia Plataforma

Kide diren GGKE hauek sare honetan parte hartzen dute:

Izaro Basurko, Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza. Jesús Ochoa, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. Gema Hierro, Medicusmundi Gipuzkoa. Patricia Ortiz de Zárate, Mugen Gaietik. Edurne Gallo, Calcuta Ondoan. Ana Mocoroa, Elan Euskadi. Idurre Ormaetxea, Interred Euskal Herria. Ainitze Zabala, Mugarik Gabe. Iñaki Revilla, Proclade Yanapay. Idoia Azpilicueta eta Periko Alkain, PROYDE-PROEGA. Nora Silva, Setem Hego Haizea. Iñigo Odriozola, TAU Fundazioa. Ane García, Behar Bidasoa. Yolanda García, Prosalus.

Erakundeetan partaidetza

■ Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorea

Sofía Marroquín, Oxfam Intermón. Josu Urrutia, Mundukide.



■ Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua

Olga García, Interred Euskal Herria. María del Mar Magallón, ALBOAN. Sofía Marroquín, Oxfam Intermón. María Viadero, Mugarik Gabe. Josu Urrutia, Mundukide. Eneko Gerrikabeitia, Mundubat. Mila Dominguez, ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación. Iñaki Orube, Mugen Gaietik. Santiago Martínez, Bakea eta Elkartasuna Euskadi.

■ Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorra

Iñaki Orube, Mugen Gaietik. Mila Dominguez, ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación.

■ Lankidetzarako Bilboko Udal Kontseilua

Olatz Ecenarro, Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu. Esther Calvo, Proclade Yanapay. Regina Zalbidea, FISC cooperación y desarrollo, eta Benja Ramos, Bakerako Lankidetzeta Batzarrea (urteko une desberdinetan). Sonia González, Bakea eta Elkartasuna Euskadi.

■ Vitoria-Gasteizko Garapenerako Lankidetzeta Elkargunea

Aurora Hermosilla eta Natalia Rodríguez, Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen Talde Teknikoa.

■ Eskutik Mundura

Aurora Hermosilla eta Natalia Rodríguez, Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen Talde Teknikoa.

■ Donostiako Udaleko Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntzako Aholku Kontseilua

Iñigo Odriozola, TAU Fundazioa. Iñigo Eguren, Calcuta Ondoan, eta Cristina Casado, Bakea eta Elkartasuna Euskadi (urteko une desberdinetan).

Talde Teknikoa

Irene Molero, Koordinazio Orokorra. Aurora Hermosilla, Administrazioa. Erika Erkizia, Idazkaritza Teknikoa eta Logistika. Natalia Rodríguez, Eragin Politikoa. Silvia de Gregorio, Generoa eta Sektorearen Indartzea. Maitane Cabeza, Mobilizazioa eta Gizarte-Eraldaketerako Hezkuntza. Jon González de Reparaz, Komunikazioa.


GGKEak

Acción Contra el Hambre-Gosearen Aurkako Ekintza
ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación
ADRA
Adsis Fundazioa
ALBOAN
Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu
Ayuda Mas
Bakea eta Duintasuna
Bakea eta Elkartasuna Euskadi
Bakerako Lankidetzaz Batzarrea
Baltistan Fundazioa
Behar Bidasoa
Bilboko Elizbarrutietako Cáritas
Bizilur
Bultzapen
Calcuta Ondoan
Cáritas Gipuzkoa
Edex Centro de Recursos Comunitarios
Egoaizia
Elan Euskadi
Elizbarrutietako Euskal Misioak
Emaús Gizarte Fundazioa
Euskadi-Cuba
Euskal Herriko Mugarik Gabeko Injeniaritza
Farmacéuticos Mundi-Farmamundi
FISC cooperación y desarrollo
FISC-Nazioarteko Solidarizarako Fundazioa
Mariaren Lagundia

Garabide
Garapena
Gazteak eta Garapena
Gipuzkoako Oscar Romero Solidaritza
Haurralde Fundazioa
Hegoa
Hirugarren Adina Hirugarren Mundurako
Ingeniería para la Cooperación-
Lankidetzarako Ingenieritza (ICLI)
Intered Euskal Herria
Iquitanz
ISCOD Euskadi
Itaka Escolapios Fundazioa
Kainabera
KCD ONGD-Kultura, Communication y Desarrollo
Lumaltik
Manos Unidas
Manuel Iradier Elkarte Afrikanista
Medicusmundi Álava/Araba
Medicusmundi Bizkaia
Medicusmundi Gipuzkoa
MSH Mundu Solidarioa Helburu
Mugarik Gabe
Mugarik Gabeko Arkitektura
Mugarik Gabeko Ekonomilariak
Mugen Gainetik
Mundu Bakean
Mundubat

Mundukide
Munduko Landagunea
Munduko Medikak
OSALDE Osasun Eskubidearen Aldeko Elkartea
OSCARTE
Oxfam Intermón
Pausumedia
Proclade Yanapay
Prosalus
PROYDE-PROEGA
ROKPA Euskadi
Save the Children
SEADen Lagunen Elkartea Araba
SEADen Lagunen Elkartea Bizkaia
SEADen Lagunen Elkartea Gipuzkoa
SED Solidaridad, Educación y Desarrollo
SERSO San Viator de Euskal Herria
SETEM Hego Haizea
SODEPAZ Euskadi Solidaridad para el Desarrollo
y la Paz
Solidaridad Internacional-Nazioarteko Elkartasuna
SOLIVE Solidaridad Vedruna
TAU Fundazioa
UNESCO Etxea
UNRWA Euskadi
Zabalketa •

Kontu argiak



SARRERAK 2019	SARRERAK (€)	%
Kuotak	32.963	8
Eusko Jaurlaritza	200.000	50
Arabako Foru Aldundia	15.000	4
Bizkaiko Foru Aldundia	34.000	8
Gipuzkoako Foru Aldundia	45.000	11
Bilboko Udala	18.000	5
Donostiako Udala	34.150	8
Gasteizko Udala	24.000	6
Jarduerengatik sarrerak	594	0

GUZTIZKOA 403.707 100

GASTUAK 2019	BURUTUA (€)	%
Bulegoko materiala	6.554	2
Soldatak	291.037	74
Bidaiak	11.121	3
Kontratazioak	72.604	18
Funtzionamendua	12.655	3

GUZTIZKOA 393.971 100

EMAITZA (€) 9.736

2019ko kontuak *BNFIX KLZ Auditores* kanpoko enpresak ikuskatu ditu eta egiaztatu du leialki islatzen dutela Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko ondarea eta bere finantza egoera. Informazio gehiago **webean**.

Txostena 2019



EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA
COORDINADORA
de ONGD EUSKADI

www.ongdeuskadi.org

Araba

Simone de Beauvoir Elkarten Etxea
San Ignacio de Loyola 8, 3. 1. bulegoa
01001 **Gasteiz**
☎ 945 280 745
araba@ongdeuskadi.org

Bizkaia

Ronda z/g (5. zk-ren aurrean), 3. C bulegoa
48005 **Bilbao**
☎ 944 150 300
bizkaia@ongdeuskadi.org

Gipuzkoa

Iparragirre 8, behea
20001 **Donostia**
☎ 943 463 526
gipuzkoa@ongdeuskadi.org

Laguntzaileak



Euskararekin bat



Itzulpena: Bakun itzulpen eta argitalpen zerbitzuak.
Diseinu eta maketazioa: Marra S.L.

